



Haur gorrieraren  
detekzio goiztiarreko  
programa Euskadin

## GORRERIAREN BAHEKETA HAURRETAN

Lengoaia eta komunikazioa garatzeko, beharrezkoa da ondo entzutea. Entzuten ez duen umeak zailtasunak izango ditu hitz egiteko eta komunikatzeko, eta horrek eragina izango du bere garapen emozional eta sozialean, eta baita bere eskola-garapenean ere.

Detekzio goiztiarreko programari esker, segituan diagnostika daiteke gorrieria, eta txiki-txikitatik jar daiteke tratamendua eta has daiteke estimulazioa. Horrela, umeak ahozko hizkuntza bere egingo du eta komunikazio-gaitasunak garatuko ditu.

### NOLA EGITEN DA BAHEKETA-PROBA?

Jaioberriari gorrieraren baheketa orokorra egitea gomendatzen du Euskadiko Osasun Sailak, eta, horretarako, 35dBtan automatizatutako garun-enberraren entzumen-potentzial ebokatuak erabiltzea.

Garun-enberraren entzumen-potentzial ebokatu-ekin azterketa egiteko, soinuak igortzen dituzten kaskoak jartzen dira, eta garunerantz doazen seinaleak jasotzen dira ile-larruan jarritako sentsoreen bidez.



### ENTZUMEN- BAHEKETA **GEEPE- AREKIN (35 dB)**

### Noiz egiten da?

Bizitzako aurreneko egunetan; normalean, lehenengo 12 orduen ondoren eta, ahal bada, amari alta eman baino lehen, jaioberria lasai edo lo dagoenean. Baheketa ezin bada alta eman aurretik egin, bizitzako aurreneko hilabetean egin behar da.

### Nolakoak izaten dira probaren emaitzak?

Entzumen-probaren emaitza normala bada, umeak une horretan ondo entzuten duela esan nahi du. Normalean, umeen gorrieria iraunkorrek jaiotzatik etortzen dira, baina batzuetan beranduxeago azaltzen dira. Hortaz, umeak jaiotzerakoan proba gainditzen badu ere, gurasoek adi egon behar dute, ea entzuteko zailtasunen zantzuak antzematen dituzten.

Emaitza ez bada normala, otorrinolaringologiako aditu bati bidaliko zaio, umeari azterketa zehatzago bat egin diezaion, arazoren bat dagoen egiaztatze edo baztertzeko. Hasierako baheketa gainditzen ez duten umeen artetik oso gutxi izaten dira benetan gorrieria dutenak.